



Euskarazko kazetaritza sari nagusiak

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien edizioa igaro berri da. Aipatzekoa izan zen Jakoba Errekondoren hitzaldia, ezin izan baitzion emozioari eutsi / 9

Diputatuen Kontseilua

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontseilu Ibiltariak Urnietan egin du geldialdia / 7

Iristear da "Kantari"
Andoainera:
euskarazko kantak
sustatzeko helburu du
egitasmoak / 11

Euskarari loturiko
egitarau oparoa
aurkeztu dute herri
eragileek eta
Urnietako Udalak / 5

2025-2026
EMAKUMEONTZAKO
jabekuntza
eskola

Izen-ematea:
abenduaren 15era arte



ESCUELA DE EMPODERAMIENTO PARA MUJERES
ÉCOLE D'AUTONOMISATION DES FEMMES
ȘCOALĂ PENTRU EMANCIPAREA FEMEILOR
مدرسة التمكين للنساء

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

ETXE BATEAN
ETB2 PIZTEN
DEN BAKOITZEKO,
22 ZENTIMETRO
URRUNTZEN DA
IPARRALDEA



Kontzertua, Hogar Extremeñoen eskutik

Aurreko urteetan egin bezala, Gabon kantetan oinarrituriko emanaldia antolatu zuen Andoaingo Hogar Extremeño elkarteak. Eskualdeko eta Gipuzkoako hainbat talde hurbildu ziren Bastero Kulturgunera, larunbat eguerdian

Erredakzioa ANDOAIN

Lasarte-Oriako Andaluziaren Etxeko Semblante Andaluz abesbatza, Donostiako Galizia Etxeko Xixtral abesbatza, Donostiako Extremaduraren Etxeko Guadalupeko Ama Birjinaren abesbatza eta Erretereriako Aljarafe taldea hurbildu ziren Andoainera Gabon Kanten jaialdian parte hartzera. Guztiak ere Andoaingo Hogar Etxemeño elkarteak gonbidatuta.

Argazki-bilduma eta bideo-sorta ikusgai, Aiurri.eus webgunean. Egunotan, bestalde, ikusgai dago "La huida de los 8.000" erakusketa Ambrosia Ola-bide eraikinean.



Extremadurako folkloreari tarte zabala eskaini zioten. AIURRI



Xixtral abesbatzak galegoz eta euskaraz abestu zuen. AIURRI



Emanaldiko hainbat bideo ikusgai daude Aiurri.eus webgunean. AIURRI



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).

Diseinua: Goleña / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.





ERALDAKETA
DIGITALEAN
BEHAR DUZUN
BIDELAGUNA



GIZA BALIABIDEAK web aplikazioa dugu, lan ordutegia eta lan egutegia modu erraz eta sinplean kudeatzeko.



Aplikazio honen bidez, enpresek **langileen egutegi eta ordutegien** kontrola izango dute. Lan egutegiaren kontrola, **lizentzien eta lan jardueraren gaineko kudeaketa modu** erraz eta intuitibo batean. On-line bidezko **fitxaketa eta kudeaketa panela**.

Langileek berriz, beren lan jardueraren erregistro guztiak gardentasunez ikusgai izango dituzte, eskatutako lizentzia nahiz oporren erregistro eguneratu bat ere eskuragarri izango dute uneoro.

Ez izan zalantzarik, informazio gehiagorako jarri gurekin harremanetan.

info@izt.eus

Martin Ugalde,
Kultur Parkea
20140 Andoain
943 304 315
www.izt.eus

16.400 saski banatu ditu Errigorak, horietatik 46 Urnietan

Goranzko joera mantenduz, 256.500 euro bideratuko dira aurten Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzara

AIURRI komunitatea

ERRIGORA / NAFARROA

Amaitu da 'Errigoraren Euskarari Puzka' kanpainaren XII. edizioa. 20 egun inguru iraun zituen kanpainan Euskal Herri mailako auzolan nazionala antolatu zuen ekimen herritarrek, zer eta beste urte batez Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzak (gaur gaurkoz ere) beharrezkoa duen babes ekonomikoa biltzeko. "Ezinbestekoak euskararentzat Agerrean" lemapean, Errigorak Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzako eragileen lanari

aitortza eta garrantzia eman nahi izan dio, hau da, AEK, Sotzen, Ikastolak eta Agerraldiak eragileek egiten duten lanari. Hango eta hemengo eskariak ongi bildu eta zenbakiak txukundu ostean, esan dezakegu, aurtengoa ere oso kanpaina emankorra izan dela. Izan ere, 16.400 saski eskatu dira guztira. Horietako bakoitzaren balioaren laurdena ekarpen ekonomikoa dela kontuan hartuz, 256.500 euro bideratuko dira Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintza laguntzera, iaz baino 18.000 euro gehiago.



Errigora. ERRIGORA

Errigoraren kanpainarik arrakastatsuenetariko baten aurrean gaudela esan dezakegu beraz, eta gainera, urtetik urtera harrera eta emaitza hobeak uzten dizkiguna. Elkartasun kanpaina bat hainbeste urtez bizirik man-

tentzeak lan handia eskatzen du; eta hortaz, aipamen berezia egin nahiko genioke urtez urte bere lekutik tinko lanean jarraitzen duen Errigorako kide orori. Kanpaina honen bihotza auzolana da. Iragan ditugun egunetan horrek itzulpen nabaria izan du: Ablitaseko auzolan erraldoia, herriz herriko ekimenak, San Fermin ikastolako auzolana, ekoizleen arteko auzolana, banaketan laguntzeko bildu diren bolondresak...

Estreinekoz, Urnietan

Aurten, berrikuntza batekin iritsi da ekimena eskualdera, Andoainen ez ezik, Urnietan ere eskaria herrian bertan jasotzeko aukera izango baitute herritarrek. Kanpainan 46 saski eskatu dira Urnietan: 8 saski beltz, 30 saski berde eta 8 saski gorri.

KOMUNITATEA

URNIETAKO AEK-KO B2 TALDEA

URNIETA

Jolasen mintzodromoa

Azaroan, mintzodromoa izan genuen Lekaion. Bertan, AEK-ko hiru talde bildu ginen. Guztira, hogeitaz bat ikasle izan ginen. Mintzodromoa euskaraz hitz egiteko antolatzen den ekitaldia da; jendea zenbait txokotan banatzen da, gauza ezberdinei buruz hitz egiteko. Denbora pasatzen denean, taldeak aldatzen dira eta gaiak ere bai.

Gure Mintzodromoaren hasieran, AEK-ko hiru talde nahastu ginen eta jolasak egin genituen, jendea gehiago ezagutzeko. Ondoren, denak lau taldetan banatu ginen eta talde bakoitza txoko batera joan zen. Lehenengo txokoan "Silaba beroa"-n jolastu ginen. Hiztegia lantzeko jokoa da, batzuentzat super zaila izan zen, imajinario handia behar genuelako. Bigarren txokoan, kulturaz hitz egin behar genuen; horretarako, kartel bat zegoen galderekin eta gure artean azaldu behar genuen. Hirugarren txokoan, asmakizunetan jolastu ginen, hau da, pista batzuekin asmakizuna atera behar genuen. Azkeneko txokoan, lau bertso eta lau bertsolari genituen eta bertso bakoitza bere egilearekin lotu behar genuen.

Gure ustez, mintzodromoa oso baliagarria da euskara ikasteko. Gainera, jende berria ezagutu dugu eta euskara desberdinekin belarria prestatzen dugu. Kontuan izan behar da, euskara ikasteko garaian, ez dela erraza, lotsa ematen duelako akatsak egitea. Giro lasaia eta atsegina badago, mintzodromoan bezala, jendea gehiago animatzen da. Bestalde, hitz egiteaz aparte, jakintza berriak edo euskal kultura ezagutzen dugu. Beraz, euskaldunak hobeto ulertzeko balio du.

Animatzen zaituztegu datozen saioetara etortzera. Euskaraz auzo berriak behar ditugu. Animatu!



Artxiboko irudia. AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Kantujira egitasmoa, Aita Larramendi ikastolaren eskutik

Abenduaren 12an Andoaingo kaleetan saioa egingo dutela iragarri dute

Erredakzioa ANDOAIN

Pasa den larunbatean, Andoaingo Aita Larramendi ikastolak antolatzen duen Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunean, Kantujira egitasmoa aurkeztu zuten. Ikastolak zabalduetako oharren arabera, "proiektu honen helburua, data jakin batzuetan kalera abestera ateratzea da, ikasleek sortutako banda txiki bat laguntzaile izanik; eta bide batez, gure euskarazko abesti kuttunak elkarrekin abestuz. Irteera horietan Andoaingo kaleak alaitu nahi ditugu".

Lehen irteera, datorren abenduaren 12an

Euskal kantagintza biziberrituko du, beraz, ikasle taldeak. Aurkezpena egin eta berehala, lehen irteera antolatu dute: "Gure lehendabiziko kantujira abenduaren 12an egingo dugu. Goizeko 11:15etan Juanita Alkain plazatik abiatuko gara eta beste bi geldialdi egingo ditugu. Bertan parte hartzeko gonbita herritar orori eta herriko hainbat eragile desberdinei luzatu diegu". Euskarazko kantu ezagunekin gozatzeko aukera izango da, beraz, ikasle gazteen eskutik.



Ekimenean parte hartu duen ikasle taldea. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

"Ekonomia zirkularra modelatzen", La Salleren eskutik

Jasangarritasuna helburu duen eskultura sortu du Andoaingo ikasle-taldeak

Erredakzioa ANDOAIN

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea, "Ekonomia zirkularra modelatzen" erakusketan antolatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bertan parte hartu dute La Salle Berrozpeko Soldadura eta Kaldereria zikloko bigarren mailako ikasleek. Jasangarritasuneko diputatu Jose Ignacio Asensiok balioan jarri zuen ekimena: "Ekonomia zirkularra ikasgeletan hasten da. Horrelako ekimenek aukera ematen diete belaunaldi berriei gaitasun teknikoak eta ingurumenekoak garatzeko".

Ekimenean parte hartu duten ikasleen azalpena

"Txatarrategian aurkitutako saskibaloi-aro bat berrerabili genuen, eta haren aroa eta azpiko oinarria moztu genituen gure eskulturaren egitura egiteko. Ondoren, piezak soldaturaren bidez elkartu genituen, eta rotaflexarekin lixatu genituen xehetasun guztiak. Jarraian, birziklapenaren ikurra irudikatzen zuen diseinu bat deskargatu eta plasma bidez moztu genuen. Ondoren, garbitu eta kate batzuekin zintzilik jarri genuen, saskibaloi-aroaren barruan".



Udal ordezkariak eta gizarte-eragileak, egitarauaren aurkezpenean. UDALA

Euskaraz gozatzeko hilabetea, aurretik

Askotariko hitzorduak biltzen dituen egitaraua izango da abendu osoan, hizkuntza bera zein euskal kultura hauspotzeko helburuz. Manttalek, Egape Dantza Taldeak, Etxeberri auzo-elkarteak eta Urnietako Udalak osatu dute egitaraua.

Erredakzioa URNIETA
Antzerkia, musika, dantza, haur jarduerak... “Euskaraz bizi, euskaraz kanta; Lourdes Iriondo gogoan” goiburupean, euskaren aldeko kultur-eskaintza oparoa iragarri dute Urnietan. Abenduaren 2an abiatu zen euskara ardatz duen egitaraua “Aigure juañeteak” antzezlanaren aurre-estreinaldiarekin.

Abenduaren 3an Liburu Txiki Kluba eta kantu eta dantza saioa egin zuen plazan, Egape Dantza Taldeak eta Manttalek antolatuta. Ondoren, Beltran Laukoteak kontzertua eman zuen Saroben.

Umorea, abenduaren 12an
Datorren asteko ostiralean, iluntzeko 19:00etan hasita Ztandap taldearen emanaldia izango da

Kiroldegiko gunean. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai izanen dira protagonista.

Antezlana, abenduaren 14an
Abenduko bigarren igandean, 19:00etan hasita, “Desobedienteak 18/98” antzezlanaren aurrestrenaldia egingo du Txalo konpainiak, Saroben. Sarrerak bertan eskuragarri egongo dira.

San Tomas bezpera, abenduaren 20an
Larunbatarekin, arratsaldeko 18:00etan hasita, Plazido Mujika plazan kontzertu bikoitza iragarrita dago: Esanezin eta Sanmioletan bertan behera geratu zen Janus Lester taldeen emanaldia.

San Tomas eguna, abenduaren 21ean
Igandean, San Tomas eguna ospatzeko, hainbat ekintza egingo dira Plazido Mujika plazan: 12:00etatik 14:00etara, KM0 azoka eta Aukeran dantza-konpainiaren emanaldia. 16:00etan hasita, bestalde, txistorra-jatea eta erromeria Etxeberri plazan.

Haur jarduerak, abenduaren 22an hasita
Ludotekan egingo dira eskulan tailerrak LH1-LH5 bitarteko haurrentzat. Zehazki, abenduaren 22, 29, 23 eta 30ean, arratsaldeko 17:00etatik 18:30era.

Olentzero eta Mari Domingi, abenduaren 23an
Arratsaldeko 17:30ean hasita, herriko haurren artean oso gustuko den ekitaldia egingo da: Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Egape Dantza Taldeak antolatuta.

Kantaldia, abenduaren 27an
Abenduaren 27an, eguerdiko 12:30ean hasita, Ainhoa Ansa eta Irati Odriozolaren kantaldia izango da, Iriondoren omenez. Kantariaren izena daraman parkean, hain zuzen.

Magia-emanaldia, abenduaren 28an
Arratsaldeko 17:30ean hasita, Saroben, Smile magoak aho bete hortz utziko ditu ikuleak.

Emakumeen Jabekuntza Eskolaren ikastaroak

2026. urtean hasiko diren ekintzetan leku libreak daudenez, izena emateko zabalik dago

Erredakzioa URNIETA
Parte hartu nahi duten emakumeek abenduaren 1etik 15era bitartean eman beharko dute izena Bertan herriararren arretarako bulegoan, astelehenetik ostiralera 7:30-14:30 bitartean edo online Urnietako Udalaren webgunean. Bestalde, zaintza-zerbitzua ere bermatuko du Urnietako Udalak: “Beharra dutenek ekintza bakoitza hasi baino 15 egun aurretik eskatu beharko dute”.

- Ikastaroak**
- Lilatoiairen prestaketa, Arixen Unanue Usabiaga atletismoko entrenatzailearen eskutik. Egutegia: urtarrila-otsaila.
 - Mitoak deseraikitzen, harremanak elkarrearen eskutik. Egutegia: martxoa.
 - Lantegi praktikoa eta bizipenezkoa, Estereotipak elkarrekin dinamizatuta. Egutegia: martxoa.
 - Oinarritzko brikolaje tailerra, Carmen Melchor Serna gas, berokuntza eta iturgintza instalatzailearen eskutik. Egutegia: martxoa, apirila eta maiatza.
 - Sormen tailerra, Isa Casanova eta Jhana Beaten eskutik. Egutegia: maiatza.



Ereñotzuko



Auzo Udala

Datozen asteetan Ereñotzuko Auzo Udalak IRRINTZI TABERNAren ustiaketaren esleipena argitara emango du.

Bost urterako aukera, alokairu gasturik gabe eta auzo udalarekin elkarlanean.



Urnietako
udala

Euskara, arnasestu betean

Ehun urteko ibilbidea aitzakia hartuta, omenaldia egin dio Xoxokako Eskolari joan den asteburuan bertako auzo elkarteak. Besteak beste, euskararen arnaguneei buruz gogoeta egiteko tarteak izan zuten egitarauan



Gari Goikoetxea eta Joxe Garmendia, Xoxoka Auzo Elkarteak. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Euskara hizkuntza nagusitzat duten lur-eremu geografikoei deitzen die arnagune Gari Goikoetxea kazetari eta euskara-technikariak. Bada, toki horiek bizi duten egoera soziolinguistikoa murgiltzeko aukera izan zuten urnietarrek, joan den ostiralean, Xoxokako auzo-elkarteak Eskola Zaharraren 100. urteurrenaren harira antolatutako egitarauarekin. “Ehun urteko arnasa” lelopean, bi eguneko hitzordu-sorta antolatu zuten pasa den asteburuan Goiburu auzoan bertan: Joxe Garmendia ikertzailearen hitzaldiak ireki zuen omenaldia ostiralean, landa-eremuko eskolei buruzko hitzaldiarekin. Ondoren, Goikoetxeak hartu zion lekukoa, euskarak dituen arnaguneei gertuko erradiografia egiteko.

Euskara behetik gora sendotasunez hauspotzen duten udal-erri, auzo, eskualde edota bertselako izaera geografikoa duten eremuak dira arnaguneeak. Hala, Goikoetxeak bost multzotan banatzen du euskararen presentzia ehuneko eskala duen termometroan: sailkapen horretan, bigarren multzoan, % 20 eta % 40ko artean kokatuko litzateke Urnieta, erabatekoa izan gabe, erdarak presentzia handia duen eremuen taldean, hain justu ere. Behin % 60ko muga pasata, arnagune izaera hartzen dute tokiek; % 80ra bitarteko tartean, “arnagune erasan” gisa dira ezagunak, besteak beste, Tolosa inguruko herri txiki asko. Aldiz, “arnagune beteak” dira, Goikoetxeak azaldu bezala, euskara “sendoen” dauden eremuak: “Gipuzkoan, 1.000 biztanletik gora izaera horretako bi herri

daude soilik, Ataun eta Berastegi. Beste guztiak 1.000 biztanletik beherakoak dira”.

Arnaguneei buruz jardutean, begirada erabileratik harago bota behar dela uste du Goikoetxeak, eta arnagune bat arnagune izatea ahalbidetzen duen ekosistemari erreparatu behar zaiolakoan da. Hala, adituaren aburuz, gaitasunak, transmisioak eta belaunaldiartekotasunak badute zeresanik horretan. Lehen nabardurari dagokionez, “euskarak eroso bizi diren, euskal hiztun onak diren eta erdaraz baino aiseago, errazago egiten duten hiztunak” dituzte arnaguneeak, teknikariak hitzaldian azaldu zuenaren arabera. Transmisioan ere rol inportantea jokatzen dute, Goikoetxearen iritziz arnaguneei, bertako biztanleentzat “gauza naturala” da ondorengoei euskara trans-

mititzea eta “hori ez da Euskal Herrian nagusitzen den joera”. Batez ere, gaztelania edo frantsesa gailentzen direla zehaztu zuen adituak hitzorduan: “Arnaguneetan, euskara da transmititzen den hizkuntza, normal-normal. Ez dago, nolabait, gurasoen aldetik gogoeta kontziente bat”. Horrekin lotuta dago ekosistemako hirugarren lengoia, belaunaldiartekotasunarena: “Orokorrean, adinaren arabera, erabilera asko aldatzen da. Umeak dira euskaraz gehien egiten dutenak, gero gazteak, helduak eta, azkenik, adinekoak. Arnaguneetan ez dago horrelako hurrenkerarik, arnaguneetan umeek helduek bezala egiten dute euskaraz. Ez dago adinaren araberrako horrelako ezberdintasunik”.

Aurrerantz, beherantz

Behin testuinguruan kokatuta, begirada historian atzera botatzeko gonbita luzatu zuen Goikoetxeak hitzaldian, joan den mendeko datuetan lur hartzeko: Hego Euskal Herrian, 1900. urtearen bueltan jaio ziren umeen artean, 5etik 2 arnaguneetan jaiotzen ziren. Hamarkadetan aurrera egin ahala, datuak beherantz amiltzen direla nabarmendu zuen adituak: “Gero eta ume gutxiago jaiotzen ziren testuinguru horietako udalerrietan; ez ume gutxiago jaiotzen zirelako horietan, herri batzuk jada arnagune izateari uzten ziotelako baizik”. Gaur egungo argazkiari erreparatuz gero, galerak etenik ez duela mahai-gaineratu zuen Goikoetxeak: “Umeen % 10 inguru jaiotzen dira arnaguneetan eta horietako gehienak, arnagune erasanetan”.

1991. urtean euskararen erabilera % 90etik gora erabiltzen zuten 40 udal-erri baino gehiagotan Hego Euskal Herrian. Gaur egun datu horiek behea jo dute la azpimarratu zuen Goikoetxeak hitzaldian, egun, ez baitago, jada izaera horretako eremurik: “Euskara zenbat eta sendoago egon, orduan eta handiagoa izan da jaitsiera”. Kontrako fenomeno ere gertatu dela gehitu zuen hizlariak, Gasteiz bezalako hiri batean: “Abiapuntu ahulena zen lekuetan askoz jende gehiago bizi den eremuan, igoera txiki bat egon da. Dena dela, askoz gehiago da galdu duguna irabazi duguna baino”.

Euskararen emaria

Maila kualitatiboari zein sinbolikoari garrantzia emateaz gain, datu kuantitatiboak ere inportanteak direla iritziz du Goikoetxeak, auziari eusteko ariketan. Hego Euskal Herriko pisu demografikoari begiratuz gero, jende gehiena euskarak presentzia sozial oso txikia duen lekuetan bizi dela aipatu zuen hizlariak, alegia herriarren % 83 bizi dela euskararen presentzia 5etik 1ekoa baino txikiagoa den eremuan. Aldiz, arnagune beteetan, % 1 bizi da, arnagune erasanetan % 4 eta euskararen presentziaren langa % 40ra jaitsiz gero, populazioaren % 6a. Behin zenbakiak gordin aurkeztuta, galdera bota zuen airera: egunero ekoizten den euskara guztiaren ehuneko zenbat sortzen da eremu bakoitzean? Arnagune beteetan egunero egiten den euskara guztiaren % 10; arnagune erasanetan % 19 eta, euskararen presentzia % 40ko mailara eramanda, eguneroko erabileraren % 23. Beste era batera esanda, soilik, Hegoaldeko populazioaren %11 bizi den herrietan sortzen da eguneroko ekoizpenaren erdia: “Oso jende gutxi da biztanle aldetik, Xoxokan ere oso jende gutxi bizi zarete, baina horrelako eremuak erortzen baldin bazaizkigu, eta joera ez da ona, bagoaz”.

Zer diote datuek etorkizunaz?

Zenbakiak ez dute iragarpen baikorrik egiten etorkizuneko arnaguneei buruz. UEMAK “bere gordinean” egindako proiektio bat eraman zuen Goikoetxeak Xoxokako hitzordura, arnaguneei bizi-itxaropenari buruz hausnartzeko: “Arnaguneei azken mende honetan eta azken hamarkadetan bereziki izan duen jaitsiera ez da geldituko, baizik eta handitu egingo da. Gaur egungo joerak aldatzen ez badira, 2036rako arnagunerik ez zaigu geldituko”.

Etxe atarian

Aferari gertutasuna eman nahian, tokian tokiko datuen gainean jarduteko tarteak ere hartu zuen Goikoetxeak, Urnietaren eta Xoxokaren arteko ezberdintasunak azalartzeko. 2021ean egindako azken zentsuko datuetara jo zuen horretarako, hau da, hamar urtean behin egiten den ariketa estatistikoko erraldiko emaitzetara. Zenbakien horiek modu orientagarrian erabili



Hitzaldia ostiral iluntzean izan zen. AIURRI



Bazkaria, larunbat eguerdian. XOXOKAKO ELKARTEA

behar direla aitortu zuen: "Fidagarritasuna badauka, baita balio legala ere, baina kontuz hartu behar dira datuak, batez ere eremu txikietan".

Ezagutzari dagokionez, gutxi gorabahera herrigunean biztanleen % 60k menperatzen du euskara, %18ak ulertu bai, baina hitz egiteko gaitasun eza du eta % 22ak ez du ulertu ere egiten. Xoxokan, % 85ak daki eus-

karaz, % 8ak, ulertu arren, ez dauka hitz egiteko nahikoa oinarririk eta % 7 ez da gai hizkuntza ulertzeko.

Etxe barrura salto eginda, zein da herrigunean nagusiki transmititzen den hizkuntza? Adituak aditzera eman zuenez, herrigunean, populazioaren erdiari baino gehiagori gaztelania transmititu diete gurasoek; 3tik 1ek, berriz, euskara jaso du. Bestalde,

biztanleen % 8 elebitasunean hazi izan da, eta % 5ek ez dute ez euskara ez gaztelania jaso, beste hizkuntza bat baizik. Xoxokara hurbilduta, bizilagunen % 13k izan du gaztelania lehen hizkuntza; euskara, aldiz, 5 kideetik 4k. Hala, % 5ak aipaturiko bi hizkuntzak izan dituzte eta % 3ak horiek ez diren beste bat.

Horren aurrean, Goikoetxeak adierazi zuen, gutxi gorabehera,

herriguneko biztanleriaren % 55ak ez duela etxean euskara hitz egiten eta zabaltzen ari dela gaur egun %20an kokatzen den elebitasunaren tartea. Xoxokan, halaber % 50 pasatxo jarduten da euskara hutsean, % 22 euskaraz zein gaztelaniaz eta % 27 erdaraz.

Datuokin desberdinkeriaz baino desberdintasunaz mintzatu beharra dagoela uste du adituak:

"Egoera soziolinguistikoa differentea da hemen eta horrek eskatzen du nolabait egoera horren arabera neurriak politikak jokabideak eta erabakiak behar ditugula". Baitzapen horren zergatiagatik galdetuta, oso argi du Goikoetxeak: "Xoxoka bezalako eremuak behar ditugulako, xoxokarrentzat, urnietarrentzat eta euskal herritarrentzat".



Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua eta Udal gobernu taldeko hainbat kide, taldeko argazkian. AIURRI

Diputatuen Kontseilua Urnietan bildu zen

Legegintzaldi honetan, saio ibiltariak egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua. Asteartean, egitasmoaren 18. bilera egin zuten Urnietan, udaletxeako areto nagusian

Erredakzioa URNIETA

Legegintzaldi honetan, saio ibiltariak egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua. Hala, ekimenaren barruan, asteen geldialdia egin dute Urnietako udaletxean, herriaren beharrak, erronkak eta proiektuak "bertatik bertara" ezagutzeko xedez, bai eta udalekin lankidetzara "estutzen" jarraitzeko asmoz ere. Bide horretan, udalbatzaren aretoan gobernu-kontseilua egin aurretik, lan-bilera egin zuten Eider Mendoza Ahaldu Nagusiak eta Jorge Segurado alkateak.

Esker onez jaso zuen Urnietako alkate Jorge Seguradok Kontseilu ibiltaria, bi administrazioen artean dagoen "harreman eta sintonia ona" nabarmentzearekin batera. Urnietan eta Lasarte-Oria lotuko dituen Plazaolako bidegorria, adinekoen egoitza eraikitzeke lursailaren lagatzea, arrapala mekanikoak jartzea, futbol-zelaia eta atletismo-pista berritzea, zaintza-ekosistema... Askotariko gaien bueltan egin zuten bilera Mendozak eta Seguradok. Horren aurrean, "aberasgarria" iruditzen zaio dipu-

tatuari Kontseilu ibiltariaren bitartez herrietako plazetara hurbiltzea, "geure arteko harremanak sendotzen dituelako, elkar ezagutzen sakontzen duelako eta, elkarlanean oinarrituta gauzak hobeto egiten ditugun heinean, horrek ere asko laguntzen duelako".

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, alderdiek adierazpen instituzionala onartu zuten goizeko kontseiluan, hizkuntzaren aldeko "urrats berriak eta ausartak" emateko bidean. Mendozak aditzera eman zuenez, ez da kasualitatea izan gaurko hitzordua Urnietan antolatu izana, abenduaren 3arekin lotura eginda, "non hobeto adierazpen hori Lurdes Iriondoren etxe aldamean onartzea baino?". Kantariak euskarari, euskal kulturari eta haurren hezkuntzari egindako ekarpenari nolabaiteko keinua egin nahi izan diote Foru Aldundiko ordezkariak gaurko bilera bere herrian eginda. Hari horri tiraka, Mendozaren esanetan, abenduaren 12an, aurtengo Gipuzkoako Urrezko Domina jasoko du Iriondok, artistaren heriotzaren 20. urteurrenarekin lotuta.



Bisitaldi instituzionala egin zuten Igarategi industriguneko instalazioetara. AIURRI

Tamaina handiko hondakinak tratatzeko guneari bisitaldia

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearekin bat eginda, ate irekien jardunaldiak egiten aritu ziren Emaus fundazioa zein Koopera Ingurumen Zerbitzuak kooperatiba, Aldundiko Jasangarritasun Sailaren laguntzaz, hondakinak tratatzeko instalazioan

Erredakzioa URNIETA

Tamaina handiko hondakinak zein tresna elektriko eta elektronikoetan espezializatuta dago Urnietako gunea eta helburu hirukoitza bete nahi zuten ate irekien jardunaldiekin: batetik, mota horretako hondakinak nola kudeatzen diren ezagutarazi nahi zuten; bestetik, berrerabilpena sustatzea dute xede eta, azkenik, jarduera horren gainean sortu diren gizarteratze- nahiz laneratze-arloko enplegu-aukerak ikusaraztea izan da asmoa.

Hori horrela, ekitaldi instituzionala egin zuten aurreko astean eta lurraldeko, eskualdeko nahiz herriko ordezkari politikoen bisita jaso zuten, bestek beste, bertan izan ziren: Jose Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatua, Monica Pedreira Trantsizio Ekologikoko zuzendaria, Urnietako Jorge Segurado alkatea eta Andoaingo Udaleko Xabier Fondon eta Diego Barrasa zinegotziak ere.

Ekonomia zirkularra ardatz, 2024ko hasieratik, batera kudea-

tzen dituzte beren jarduerarekin lotutako hondakinak Emausek eta Kooperak, Urnietan zein Oreretan. Aipaturiko lehen instalazioan kudeatzen dute bi eragileek tamaina handiko hondakinen fluxua: haien esanetan, etxez etxeko bilketaren eredia erabiliz, % 60tik gorako berrerabilpen-tasa lortu dute: “Horren arrazoia da etxez etxe bilduta objektuak egoera hobean iristen direla, bestela baino gutxiago hondatzen direlako. Gero berrerabiliak izateko konpondu eta



Emaus fundazioko kideen artean, Segurado Urnietako alkatea. AIURRI



Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun diputatua. AIURRI



Fondon eta Barrasa, Andoaingo Udaleko zinegotziak. AIURRI

prestatzeko askoz aukera handiagoa dute horrela”.

Era berean, ehungintzako materiala sailkatzen eta baliarazten espezializatua da Oreretako instalazioa eta lurraldeko berrerabilpen-estrategian “funtsezko zeregina” betetzen duela uste dute: “Kontsumo osteko

2.000 tona ehun kudeatzeko ahalmena du urtean, eta berreskuratutako frakzio osoa berrerabiltzera edo birziklatzera bideratzea bermatzen du; zabortegira ez da ezer iristen”. Horrela, instalazio horretako hamabi lanpostuetatik zortzi gizarteratzeko enpleguak dira.



Mikel Arregiren eskutik jaso zuen Ohorezko Aipamena Jakoba Errekondok. AIURRI

Errekondo, erabat hunkituta

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien 37. edizioko saridunetakoa izan zen usurbildarra eta ezin izan zion emozioari eutsi. Datorren urtean 60 urte beteko dira Rikardo Arregik hitzaldi gogoangarria eskaini zuela Usurbilen eta oroitzapen horrek hunkitu zuen erabat

Erredakzioa ANDOAIN
Jenofa Berhokoirigoinek eta On.eus atariak dira 37. Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien irabazleak. Ohi bezala, Andoaingo Udalak ekitaldi mamitsua antolatu zuen, hitzartze ugariarekin. Edizio honetan, hizlari guztien artean, Jakoba Errekondo usurbildarrarena izan zen hunkigarriena. Ohorezko Mugarria jasotzera igo zen oholtzara aurretik jakinik, gainera, sari hori emango ziotela. Baina, hala eta guztiz ere, protagonistak ezin zion negarrari eutsi. Eta haren emozioa ikusleen artean barreiatu zen. Bastero Kulturguneko auditorioan zegoen publikoaren bihotza urratu zuen Jakoba Errekondoren mintzaldiak, hain zuzen, Rikardo Arregik Usurbil herriarekin duen harreman estua gogorarazi zuenean. "Udaregi bertsolaria omentzeko

Usurbilen 1966an egin zen ekitaldian, Arregik euskararen gainean egin den hitzaldirik onena" eman zuela esanez batera eten behar izan zuen mintzaldia, erabat hunkituta. Une horietan alboan zuen, saria

aurrez eman zion Mikel Arregi, Rikardoren anaia. Txalo zaparrada jaso zuen omenduak. Ondo merezita du saria agronomo eta paisaia antolatzaileak: Euskadi Irratian eta liburugintzan egin duen ibilbidea oparoa baita.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien 37. edizioko irabazleak. AIURRI

Aurtengo sarituak

Kazetaritza saria, Jenofa Berhokoirigoin

Epaimahaiaren erabakia: "Garaztar kazetariak etengabe aldatzen doan mundu baten gaineko erreportaje multi-ahostuna eskaintzen digu Argiako orrialdeetan".

Komunikazio saria, On.eus agerkari digitala

"Ipar Euskal Herritik bultzaturik, munduari begira, ongi etorri On.eus atari partekatu berrira. Artikuluak, agenda, aholku praktikoak, bideoteka, hiztegiak, lan eskaintzak, podcastak, marrazki bizidunak... Euskaraz bizi, euskara ikasi, familian, lantegian edo lagunartean gozatu, euskara erakustera eman nahi duenarentzat webgune honek euskararekin harreman zuzena duten pertsoneri laguntza eta baliabideak eskaintzea du xede".



Andoni Alvarez Lete, Andoaingo alkatea. AIURRI

Euskarazko hedabideen alde

Finalisten arteko misterioa argitu aurretik, Andoni Alvarez alkateak ongietorria eman zien bertaratu zirenei. Mezu bikoitza izan zuen bere adierazpenak. Lehena, salaketa: Andoaingo herria foko mediatiko sentsazionalistaren jomugan izan baita azken aldian. Eta horren haritik tiraka, bigarren mezua: zaintzaren aldekoa, euskarazko komunikabideen aldekoa: "Egun haietan, tokiko eta euskarazko hedabideek babestu gintuzten. Horregatik euskarazko hedabideak zaindu egin behar ditugula aldarrikatu nahi dut. Euskarazko komunikabideak zaindu, beraiek babestuz, irakurritz, ikusiz, entzunez... euskarazko komunikabideek, gure hizkuntzan informatzeaz gain, herritarrok zaintzeko ikuspuntuarekin informatzen gaituztelako".



Arantxa Irigoras musikariaren eta Isidro Langara futbolariaren senitartekoak. AIURRI



Gora Kaletxiki Bandako partaideak. AIURRI

Emanaldi hunkigarria

Gora Kaletxiki Bandak Santa Zezilia eguneko emanaldi berezia egin zuen Santa Krutz elizan, aurreko asteburuan. Aurtengo emanaldian bi izan dira protagonista nagusiak: berriki zendu den Arantxa Irigoras Bandako kidea eta Isidro Langara futbolari handia

Xabier Lasa ANDOAIN

Urriaren 30ean zendu zen Arantxa Irigoras Balda andoaindarra. Gora Kaletxiki txarangako musikarietako bat izan zen urte luzez, eta Santa Zezilia eguneko kontzertuan omenaldia egin zioten. "Santa Zezili" abestiaren partituraren edizio berezia inprimatu eta familiaren eskuetan

utzi zuten. Emozioz beteriko unea izan zen kontzertuan bildu ziren senitarteko, musikari eta musikazaleentzat.

Emanaldiaren bigarren protagonista Isidro Langara futbolaria izan zen. Nazioarteko ospea izan zuen eta gaurdaino iritsi dira haren markak. Gola egiteko gaitasun aparta baitzuen!

Bada, 1934an, Teofilo Gonzalez musikari asturiarrak Andoaingo goleatzailean oinarrituriko musika pieza sortu zuen. Andoainen iaz egin zuten erakusketan ikusgai jarri zuten partitura, eta hortik tiraka, kantua zuzenean eskaintzeko erabakia hartu zuen Gora Kaletxiki Bandak.

Santa Krutz elizan egindako kontzertuan egin zuten estreinaldia. Gonzalez egileak pianoarekin jotzeko idatzi zuen, eta asteotan, Joxe Mari Oizartabalek partiturak egokitu egin ditu musika pieza hori txistua, orkestra sinfonikoa, banda sinfonikoa eta, harizko laukotearekin jo ahal izateko. Partiturak senitartekoen esku utzi zituzten larunbatean, behin estreinaldia egin eta gero. Junkal Guerrero musikariak jaso zituen partiturak, Isidro Langara familiaren izenean. Pieza hori eta gehiago (Michael Jacksonen "Heal the world"; Nino Bravoren "Noelia", "America", "Un beso y una flor" eta "Libre") ikusgai daude Aiurri.eus webgunean, bideoen atalean.



Oizartabal, zuzendaria. AIURRI



Berrondo, aurkezlea. AIURRI

Odol-emaileei omenaldi ekitaldia

Andoaingo odol-emaileen elkarteak ekitaldia antolatu zuen, hilaren 28an, batzaraldi aretoan. Omenduak:

- 25 odol-emate: Eneko Aizpurua Olazabal, Miguel Angel Conde Correa, Jose Angel Esnaola Orbegoza, Mikel Jauregi Sunsundegu, Monica Paz Amenabar.
- 40 odol-emate: Kontxi Urkola Roteta, Miren Agurtzane Urtasun Etxeberria.
- 50 odol-emate: Javier Oruezabala Iraola
- 75 odol-emate: Nikolas Urrutia Olasagasti.





Kantari ikuskizuneko irudia, artxiboko argazkian. KANTARI

Iristear da Andoainera "Kantari" egitasmoa

Kantari gaztetxoaren artean euskarazko kantak sustatzeko ikuskizuna da. Debagoienan abiatu zen eta dagoeneko hainbat udalerrietara zabaldu da: Andoainera 2026an iritsiko da. Helburua neska-mutikoei euskal kantak abesten eta dantzatzeko ondo pasatzea da.

Erredakzioa ANDOAIN

Egunotan, Andoaingo Euskara Lansailak Andoaingo hiru ikastetxei bidali die parte hartzeko gonbita. Hots, Aita Larramendi ikastolari, La Salle Berrozpe ikastetxeari eta Ondarreta Herri Eskolari. Egitasmoa ezagutzeko eta izena emateko epea zabaldu da, eta aurrerago iritsiko da oholtza gainera igotzeko unea. Zer da Kantari? Kantari gaztetxoaren artean euskarazko kantak sustatzeko ikuskizuna da. Helburua neska-mutikoei euskal kantak abesten eta dantzatzeko ondo pasatzea da, hortaz, ez du inolako lehiaketa kutsurik.

Debagoienan duela hogeitortu sortua, ibilbide arrakastatsua daraman egitasmoa da Kantari. Neska-mutikoei, taldeka, euskarazko kantu bat ikasi behar dute, eredu moduan erakutsitako koreografia entseatu edo berri bat prestatu, eta eszenatoki gainean jarri abesten eta dantzatu, publikoaren eta kameran aurrean.

Bi xede talde ditu egitasmoak. Alde batetik, hartzaile zuzenak izango diren gaztetxoak. Bestetik, gazte hauen familia eta ingurukoak egitasmoaren parte izango dira ere, gazteen ikuskizunaren prestaketa-lanetan parte hartuz eta ikuskizunaren egunean publiko izanez.

Lehen xedea taldeari, hots, gazteentzuzuzendurikoa da proiektua. Haiek izango dira protagonistak: euskarazko aisialdi ekimen batean parte hartuko dute, eta euskal kantugintzaren bueltan haien adin bereko kideekin euskarazko harremanak sustatuko dituzte.

Umeez gain, bigarren xede taldeak ere euskararen sozietazioaren eginkizun garrantzitsua izango du: batetik, euskaldunak ez diren familiek haien senitateko gazteen bizitzan euskarak duen balio eta garrantziaren jabe egingo dira, eta euskararekiko gertutasuna sentitzeko aukera izango dute. Bestetik, familia euskaldunek umeekin

batera euskarazko ekimen bat gauzatzeko aukera izango dute, transmisioan lagunduz.

Kantariren helburu nagusiak

Honako hauek dira:

- Haur eta gazteek euskaraz ondo pasatzea.
- Harreman berriak euskaraz sortzea.
- Euskal kultura sustatzea, dantzak eta kantak uztartuz.
- Haur eta gaztetxoei ikuskizun batean parte hartzeko aukera ematea.
- Familia transmisioan eta, horrenbestez, euskararen sozializazioan eragitea.

Andoaingo Udalak sustatutako ekimena da eta baditu bide-lagunak: ikastetxeen bitartez hasi da ekimena garatzen, Kantari Andoainaren egiten denean, oholtzan erakutsitako koreografiaren argazkiak eta bideoak ikusi ahal izango dira Aiurri.eus gunean, atal berezian. Izena emateko garaia da.



Joanes txapeldun-ordea, atzean; Xabat, txapelduna, lehen lerroan. BERTSOA.EUS

Illarregi Marzol anaien artean erabaki zen txapela

Nafarroako Bertsolari txapelketako finaleko buruz burukora Joanes eta Xabat Illarregi anaiak iritsi ziren

Erredakzioa ANDOAIN

Nafarroa Arenan, 2.500 bertsotzaleren aurrean, Nafarroako Bertsolari txapelketako finala jokatu zen. Azken txanpara bi anaiak iritsi ziren: Joanes Illarregi (Leitza, 1999) eta Xabat Illarregi (Leitza, 2001). Sustraiak Andoainaren dituzte bi bertsolariak. Ama bertakoa baitute, Josune Marzol Ormazabal, hain zuzen.

Aurtengoan txapela anaia gaztearentzat izan da. Xabatentzat, alegia.

Txapela jantzi orduko bota zuen bertsoa, esker onez.

Bertsoa, txapela jantzi orduko

Familiari eta lagunei hau zuen buruan dago. Bertso ikasleei besarkada bat, segi bertsotan luzaro. Eta, Joanes, izango dira halako egun gehiago. Ta alderantziz tokatuko da, hortaz oso ziur nago. Baina herria eta hizkuntza ez bihurtzeko bi bando, esna gaitezen eta mugitu gure mingain, gure zango. Lo hartu ezker lur honek ez du hizkuntzarik eramango. Ta hizkuntzarik ez duen herri bat ez da herri izango.

"Nor Naizen Baneki" antzezlan, ostiral honetan

Geldialdia egingo du Bastero Kulturgunean Axut eta Artedrama konpainien birak

Erredakzioa ANDOAIN

Iluntzeko 19:30ean hasiko da hitzordua. Antzokiaren indusketa-lanetan sartzeko gonbita luzatzen diete Axut-ek eta Artedramak ikus-entzuleei, "Nor Naizen Baneki" obrarekin: denboran atzera, oso atzera jauzi egin eta historiaren erradiografia egingo dute, geruzaz geruza, erromatarren garaitik gaur egunera arte. Inkisizioa, Frantziako Iraultza, Karlistadak, 1936ko Gerra... Kantua lagun, bi mila urtetan metatutako mugargi ezagunen eta ezezagunen

tripetara sartuko da publikoa familia, jabetza, mugak, herentzia genetikoa eta indarkeria koloniala bezalako gaiei erreparatzeko.

Orain hiru urte atzera egin behar da "Nor Naizen Baneki" obraren sorrerarekin topo egiteko. Esku baten aurkikuntza egin zuen Aranzadik Irulegin, brontzezko esku bat, "Sorioneku", euskarazko lehen idatzia zuena: "2.000 urteren ondoren, esku horrek hitz egiten digu, hizkuntzak bizirik iraun duen lekuko gisa".



Leizaran institutuko ikasleak, Gordeleku Etnografikoaren atarian. LEIZARAN

Xabier Lasa ANDOAIN

Batzarrear, urtean aurrera eramandako ekimenak (Buruntza auzoan burututako ekimenak, Aingurasutegiko itsas-ainguren sutegi zaharraren oroitzapena biziberritzea, Ortzakako kariobiaren piztea, Gordeleku hornitze-lanei segimendua ematea eta bertan biltzen diren objektu etnografikoen katalogatze-lanak...), eta aldi berean, datorren urteari begira jorratu beharreko egitasmoak izan zituzten hizpide.

Azpimarratzekoa da 2026an 25 urte beteko dituela elkarteak. Mende laurdeneko ibilbide hori jomugan izanda, aparteko ospakizunak antolatzea aurreikusita daukate. Atzera-begira jarriko dira hain zuzen, eta aintzat hartuko dituzte Burdinaren historia eta ibilbidea osatu duten pertsona eta erakunde publiko zein herri elkarteak; hala nola, elkartearekin nola edo halako harremana eduki duten, eta izaten segitzen duten taldekideak eta kolaboratzaileak, bidean herioak eraman dituenak, Gordelekuan objektu zaharrak dohaintzan utzi dituztenak, elkarlanerako prestutasuna agertu izan duten erakunde publikoak eta era guztietako elkarteak...

Ikasleen bisitaldia

Bestalde, Leizaran Institutuko ikasleak Gordelekuan izan ziren joan den astean. Ikasleek interes bizia agertu zuten egin zuten

Urteko batzarra egin zuen Burdinak

Andoaingo elkarteak urteko batzarra ospatu zuen joan den larunbatean. Burdina jaio zenetik beti ipar izan duen auzolanaren filosofiari eutsita aurtan burutu dituzten ekimenak izan zituzten hizpide, eta hurrengo urteari begira jarri ziren



Burdina elkarteko kideak, batzarrari ekin aurretik, joan den larunbatean. AIURRI

bisitan, aurrez lanketa egin baitzeukaten klasean irakaslearekin.

Kasik jaio zenetik izan zen Burdinako kideen gogoia geure arbasoen lanbideak, bizimodua eta pentsamendua islatuko zituen museo modukoa antolatzea. Urteko ibilbidean, han-hemen era guztietako ondarea joan dira jasotzen, eta lanbidez-lanbide eta arloz-arlo antolatu dute txukun-txukun Extremadura kalean kokatzen den museoa, Andoaingo udalak utzitako egoitzan.

Burdinako kideek amets izan zuten hori 2022ko urrian gauzatu ahal izan zuten. Orduan irerki zituen ateak Extremadura kalean kokatzen den Gordeleku Etnografikoak, eta harrezkero, geroz eta bisita gehiago ari da jasotzen. Leizarango ikasleen bisitaldia probestu nahi izan du elkarteak bi mezu zabaltzeko herritarri. Batetik, gogorarazi dute museoak ateak zabalik dauzkala edonorentzat. Bestetik, deialdia luzatu dute herritarrei arbasoengandik jaso eta etxean gordeta dauzkaten trasteak dohaintzan ematen segi dezaten. Dagoeneko 1.800 pieza baino gehiago bildu eta txukundu bitarietiek ikusteko moduan. Egoitza txikia geratzen ari zaien arren, azpimarratu dutenez, beti egingo zaie ongietorria geure historia, tradizioak eta ohiturak bistaratzen dizkiguten pieza etnografikoei.



Pala txapelketa mixtoa, abenduaren 12an

Irunberrik antolatuta,
egun berean egingo dira
kanporaketak, 3-4.
postuak eta finala

Erredakzioa ANDOAIN

"Badator Irunberriko pala txapelketa mixtoa! Abenduaren 12an jokatuko da txapelketa osoa, gorde data! Izen ematea, tabernan, gaurkoan hasita", aipamen hori eginez egin dute antolatzaileek iragarpena. Izen-ematea dagoeneko zabalik dago: bikoiteko 20 euro ordaindu behar da Irunberri berran.

Aurtengoan, arratsaldean hasita, Aita Larramendi ikastolako pilotalekuan jokatuko dira partidak: aurre-kanporaketak, 3-4. postuak eta finala. Eta, ondoren, parte-hartzaileen arteko afari-merienda egingo dute Iruberrin.



Kemen Powerchair Football taldea martxan da

Lehen lehiaketa ofiziala Madrilgo Parlan jokatu zuten
aurreko astean


Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoan, desgaitasuna duten pertsonentzako gurpil-aulkian futbol talde inklusibo bat osatzeko deialdia egin zuten urtearen hasieran. Honako hauxe zen, orduko hartan, helburua: "gure helburua da Gipuzkoan talde bat sortzea eta kirol inklusibo hori sustatzea, pertsonak aktibo mantentzeko aukera emateaz gain, inklusioa, talde-lana eta norberaren hobekuntza bezalako balioak ere sustatzen dituen".

Bada, Powerchair Football-eko Espainiako klub elkartearen 2. Mailan izena eman du klubak, eta horrek aukera ematen die estatuko lehiaketan parte hartzen hasteko: "Poz handiz adierazi nahi dizuegu taldea bost kidek osatzen dutela dagoeneko. Hasieran taldea gazteek osatzen bazuten ere, duela gutxi 50 urteko emakume bat gehitu zaigu, eta bere etorrerak aniztasun

aberasgarria ekarri du: adinare eta generoaren ikuspegitik taldeari bestelako dimentsio bat eman dio. Bere parte-hartzeak gogorazten digu kirol hau inklusiboa dela, eta ilusioa, gogoia eta ikasteko grina daudenean, oztoporik ez dagoela".

Hazkunde-prozesu horren barruan, lehen lehiaketa ofiziala Parlan jokatu zuten aurreko astean. "Espero zen bezala, kirol emaitzak ez ziren aldekoak, hasiberriak garen heinean. Hala ere, emaitzek ez gaituzte batere etsiarazi; aitzitik, esperientziak gure taldea sendotu du eta gure ilusioa areagotu", diote taldearen sustatzaileek. Denbora gutxian asko ikasi dute, estatuko Powerchair Football maila bertatik bertara ezagutu dute, eta Gipuzkoara motibazio eta kementa berrituta itzuli dira. Urrats erabakiorra eman dute, beraz, Kement Kirol Elkarteari esker.



Andoaingo San Silbestrea

Aurten ere, abenduaren 31n lasterka aritzeko aukera izango dute. Goizeko 11:30ean hasiko da lasterketa eta antolatzaileek parte-hartzaileen gehieneko kopurua 450ean mugatu dute. Izen-ematea rockthesport.com gunearen bitartez egin behar da. Ohi bezala, Zumea plazaetik abiatuko da lasterketa. 5,3 kilometroko ibilbidea osatu arte.



Larunbat goizean, Ubitarten

Ohorezko erregional mailakoek ez dute atsedenaldirik izango asteburu honetan. Euskaldunak Ubitarten jokatuko du, goizeko 11:00tan hasita, Mondragon taldearen aurka. Saikapenean 8. postuan da, andoaindarrak baino 7 puntu gehiagorekin. Aurreko asteburuan urdinek ezin izan zuten etxean garaipena eskuratu. Urolak irabazi zuen 1-2.

ERREMONTE TXAPELKETA 2025

Orona Fundazioa

ABENDUAK 6

LARUNBATA • 16:30

GALARRETA JAI ALAI

1. PARTIDA (2 MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA)

AIESTARAN VII • AIESTARAN VI VS

SUSPERREGI • ESKUDERO

2. PARTIDA (BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA)

JABALERA • JUANENEA VS

ANSA II • ZUBIRI

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

ALDABE • MARTIRENA VS

GOIKOETXEA V • LARRAÑAGA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Erakusketa

"La columna de los ocho mil" erakusketa, 1936ko Gerran extremadurarren ihesaldia azaltzen duena.

Anbrosia Olabide.

Azken eguna: Abenduak 6.

DEIALDIA

URNIETA Jabekuntza Eskola

Lilatoiaren prestaketa, sormen tailerra, brikolaje tailerra... aukera zabala dago Urnietan.

Informazioa: Urnieta.eus.

Izen-ematea: Abenduak 1-15.

ANTZERKIA

URNIETA "Desobedienteak"

Tianttaka Teatro konpainiaren aurre-estrenaldia, 18/98 sumarioa ardatz hartuta.

19:00, Sarobe. 7 euro.

Abenduak 14, igandea.

KONTZERTUAK

ANDOAIN Kontzertua

Luis Fracaren oroimenez.

19:30, Bastero.

Abenduak 13, larunbata.

ANDOAIN Kontzertua

Udal Musika Eskolako Abesbatzen emanaldia.

18:00, San Martin eliza.

Abenduak 14, igandea.



Jendetza elkartuko da Durangon. DURANGOKO AZOKA

DURANGOKO AZOKA Euskal sortzaileen topagunea

Euskarazko disko eta liburu azokaz harago, kultur jarduera askoren topagune da Durangoko Azoka. Bisitaldia egiteko toki paregabea da, baita erosketak egiteko une egokia. Ezin ahaztu Ahotsenea gunea, zeinean etenik gabe disko eta liburu aurkezpenak egiten dituzten.

Abenduak 5-8. Durango.

URNIETA Musika Eskola

Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertu-sorta.

Abenduak 15, astelehena:

18:00. Kontzertua.

Abenduak 16, asteartea:

18:00. Trikitixa-emanaldia.

19:15. Biolin eta piano emanaldia.

Abenduak 17, asteazkena:

17:45. Talde emanaldia.

19:00. Piano-emanaldia.

Abenduak 18, osteguna:

17:00. Musika-tailerra kontzertua.

Abenduak 15-18, Sarobe.

URNIETA Esanezin

Ianire Aranzaberen taldea, zuzenean.

19:00, Sarobe. 7 euro.

Abenduak 20, larunbata.

ANDOAIN Piano emanaldia

Udal Musika Eskolako ikasleak.

19:00, Berrozpe.

Abenduak 17, asteazkena.

ANDOAIN Iratxo Enea

Udal Musika Eskolako ikasleak.

18:00, Bastero.

Abenduak 18, osteguna.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Coartadas

Larunbata, 6. 19:30.

Igandea, 7. 19:30.

Astl., 8. 17:00, 19:30.

Tigre galdua

Euskaraz.

Larunbata, 6. 17:00.

Igandea, 7. 17:00.

Zootropolis 2

Larunbata, 20. 17:00.

Igandea, 21. 17:00.



SINOPSIA

Coartadas

Zuzendaria: Martín Cuervo. **Aktoreak:** Jaime Lorente, Adriana Torrebejano, Leo Harlem, Llum Barrera, Antón Lofer , Ana Jara , Paula Prendes , Salva Reina , Mariam Hernández. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 94 minutu.



Gezurrak eta iruzurrak

Coartadas enpresaren jabea da Miguel. Enpresa horrek koartadak sortzen dizkie bikotekideei engainua egin nahi dieten pertsonei edo egoera jakin batzuk saihesteko aitzakiak behar dituztenei. Behin, enkargu batetik irteterakoan, neska bat (Blanca) harrapatzen du, eta hatz bat soilik apurtzen dio. Ospitalera eramaten dute, eta han elkar ezagutzen dute. Gero eta gehiago geratzen dira, eta maitemindu egiten dira. Blancak esaten dio epailea dela, eta gezurtiei eta iruzurrei gorroto diela. Horregatik, Miguelek gezurra esaten dio eta hileta-enpresa bat daukala esaten dio. Egun batean, Blancaren gurasoak ezagutzen ditu, eta sorpresa: aitzak Miguelen bezeroa dela jakiten du, behin emaztea engainatzeko koartada bat egiteko.

Goazen ikuskizuna

"Go!azen" telesailaren 12. denboraldiak denetarikoa osagaiak ditu: abenturak, misterioa, gaztaroko maitasuna, komedia, drama... Euskal Telebistako ekoizpenaren aldaera herriz herri egiten dituzten musikalak dira. Urtarrilaren 4an Andoainen egingo du geldialdia birak. Sarrerak dagoeneko salgai daude.



"Mila Esker!" jaialdia, hilaren 13an, Andoaingo Gaztetxean

Ruben Genbeltzu andoaindarraren eta Jon Lizarribar urnietarraren aldeko elkartasun-jaialdia da

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Gaztetxean izango da jaialdia, datorren abenduaren 13an. Sarrerak 15 eurotan salgai daude Andoaingo Irunberrin eta Lanbroan eta Urnietako Matxoan, abenduaren 7ra arte. Azken sarrerak egunean bertan salduko dituzte.

18:00 Jaialdiaren hasiera: Señor No, The Capaces, John Dealer and the Coconuts, Gaizkiñe, Flash, The Martens eta Ezekiel DJa.

21:00 Bokata-afaria.

23:00 Elkartasun-argazkia.



Jaialdiaren afitxa. ANDOAINGO GAZTETXEA

Epaibide luzearen amaiera

Jaialdiaren aurkezpen-ekitaldia Andoaingo Goikoplazan egin zuten. 2003an atxilotu eta tratatu txarrak pairatu ostean, epaibide luzea izan du Ruben Gelbentzu andoaindarraren eta Jon Lizarribar urnietarraren kasuak.

Gastu ekonomiko handia sortu da urte horietan guztietan. Elkartasun talde baten babesa izan dute eta, prozesua amaitzean dela, elkartasunezko jaialdia antolatzea erabaki dute lagunek eta senideek.

"Ez gera alferrik pasako"

Inge Mendioroz zuzendaria eta Idoia Garzes gidoigilea hurbildu ziren Basteroko Kulturguneko auditoriora



Ehundik gora lagun hurbildu zen Larramendi Bazkunak antolatutako ekitaldira. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Asteartean, Basteron ikusi ahal izan zen Mendiorozek zuzendu eta Garcesek idatzitako dokumentala. Biak ere auditoriora hurbildu ziren, filmari buruzko kontakizuna egiteko. Zinemaldian aurkezpena egin zenetik, bide

oparoa egiten ari da Lourdes Iriondoren dokumentala. Urnietan egin zuten aurre-estreinaldia eta, geroztik, hiriburu eta herrietan egiten ari dira eman-kizunak. Horrez gain, Lauaxeta saria eta Eusko Ikaskuntza saria irabazi dituzte, berriki.

Liburu-aurkezpena, Jardun Koordinadoraren eskutik

Ahoztar Zelaieta idazlea gonbidatu dute Urnietara, "El Pradalismo: el ocaso de los JoBuBi" liburuaren aurkeztera

Erredakzioa ANDOAIN

Jardun Koordinadoraren gonbidapenez, "El Pradalismo: el ocaso de los JoBuBi" liburuaren aurkezpena egingo du Ahoztar Zelaietak Urnietan, abenduaren 10ean, Lekaio kultur etxean. Arratsaldeko 19:00etan izango da hitzordua eta, egilea lagun, liburuaren nondik norakoez hausnartzeko parada egongo da bertan.

Kazetaria eta kriminologoa da Zelaieta eta askotariko hedabidetan egin izan du lan. Txalapartarekin liburu-sorta argitara eman du: "El narco oasis vasco", "Zaldibar zona cero", "Residencias SA", "Diagnóstico Tolosaldea", "La Ertzaintza que viene".

Urnietan aurkeztuko duen liburuaren sinopsia

Iñigo Urkulluren hamar urte pasatxoren agintaldiaren ondo-



Ahoztar Zelaieta. EUSKALERRIA IRRATIA.

ren, askorentzat ezezaguna den aurpegi batek hartu du Eusko Jaurlaritzaren gidaritza: Imanol Pradales. Buruzagi berriak belaunaldien arteko erreleboa egin du, EAJ-PNVren aparatua astinduz.

Idiazabal kalea, zabalik

Urnietako etorbide nagusiaren bulebarizazioa azken txanpan sartu da



Idiazabal kalea. UDALA

Erredakzioa URNIETA

Asfaltatzea egin ostean, lurreko seinaleztapena inprimatzeko lanak egin ziren. Eguraldia garrantzi handiko aldagaia da lan horiek egin ahal izateko. Asteartean Idiazabal kalea ibilgailuentzat ireki zuten berriro.

"Idiazabal kalea bulebarizatze lanak azken fasean murgilduta daude eta erritmo onean doaz aurrera", adierazi du Urnietako Udalak. Xedea argia da: oinezkoiei emango zaie lehentasuna, baina, aldi berean, ibilgailuen erabilera bermatuko da.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Alaia

Abenduaren 14ean 2 urte pottolo beteko dituzu, zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



ANDOAIN

Alaia

Abenduaren 14ean 2 urte beteko dituzu. Horra horra Olentzero dator. Izeba eta osaben partez!

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitez bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Abenduak 15, astelehena.

Andoain

Osasun etxea:

16:30- 20:15.

Deitu aurretik:

943 007 884.

Berrikuntza: Internet bidez ere hartu daiteke ordua gotatanta.eus webgunean sartuta.



GABONETAKO AZOKA

**Herriko
artisautza
postuak,
musika eta
gehiago!**

Abenduak 12
O S T I R A L A



17:00-20:00

Abenduak 13
L A R U N B A T A



10:30-13:30
17:00-20:00

Ardo dastaketa


19:00

(aldez aurretik izena eman behar da;
harrera@larramendibazkuna.eus)

Abenduak 14
I G A N D E A



10:30-13:30



Kaleberria 50, Guipuzcoano zaharra

Antolatzaileak:

